





Eguzki-sistemako ILARGIAK

Espazio-bidaia




Konta Kontari

Gauean Ilargia agertzen da zeruan. Beti ikusten ez badugu ere, bertan da, gure inguruan bueltak ematen. Baina Lurra ez da ilargiak dituen eguzki-sistemako planeta bakarra.

**Martek,
Jupiterrek,
Saturnok,
Uranok eta
Neptunok
ilargiak ere
badituzte.**



Ilargiei sateliteak
deritzo eta zientzilariek
izenak jarri dizkiete.



Badira ilargi biribilak eta badira patata forma dutenak, badira ere ilargi erraldoiak. Gure eguzki-sistemako hainbat ilargi ezagutu nahi dituzu? Ba espazio-ontzia hartu eta hauek bisitatzera goaz orain, zatoz gurekin?




ILARGIA

Hau da Ilargia, gure satelitea. Lurra baino lau aldiz txikiagoa. Lurretik erraz ikus daitezke haren **kraterrak**. Baina bakarrik alde batekoak, bere azaleraren erdia guretzat ikustezina da eta bere kolorea grisa da.




Orain dela berrogeita hamar urte baino gehiago iritsi ziren bertara lehen gizakiak. Eta handik hainbat arroka ekarri zituzten, ilargi-arrakak deritzonak.

Gutxi gora bera, hilabete bat behar du Lurraren inguruan buelta osoa emateko. Hau da ba gure satelitea, goazen hurrengora!



Lehen gizakiek 1969ko uztailaren 20an iritsi ziren ilargira, Apollo 11 espazio-ontzian.

FOBOS ETA DEIMOS




Hauek Fobos eta Deimos dira, Marteren bi ilargiak. Oso txikiak dira, 10 eta 20 kilometro artekoak. Haien forma irregularra da, patata baten antzekoa.

Kraterrak dituzte azalean.

Zientzialariek uste dute denbora asko barru **Fobos** Martetik hainbeste urrunduko dela, grabitatetik aldegin eta asteroide alderrai bihurtuko dela.

Deimos berriz, Martera hurbiltzen ari da eta horrela milioika urte barru berarekin egingo du talka. Haren pusketak inguruan jiratzen hasiko dira eta horrela eraztun batzuk osatuko dira.



GANIMEDES


Eta ilargi txikienetatik,

handienera ailegatu gara, Ganimeses erraldoia. Hau da Jupiterren ilargirik handiena, baita eguzki-sistemakoa. Hain da handia, Merkurio planeta baino handiagoa dela.



Urrunetik ikusita gure ilargiaren antza dauka, grisa da eta. Eredu magnetiko indartsua duen satelite bakarra da.

EUROPA



Hau Europa da, tamainaz Jupiterren laugarren satelitea. Biribila da eta **izotzaz** dago estalita. Lurrarekin nahiko antza dauka, baina eguzkitik urrunago dagoenez, hotzagoa da.

Bere nukleoa harriz osatuta dago eta horren gainean ozeano handi bat dago. Zientzilarien iritziz, ozeano horretan - izotza azpian - bizitza egon daiteke. Hau bai sorpresa handia!

TITAN

Hemen Titan, Saturnoren ilargirik handiena. Gure ilargia baino bi aldiz handiagoa, Ganimedes baino pixkat txikiagoa. Horixka da eta atmosfera trinkoa duen eguzki-sistemako satelite bakarra.

Bertan **urtaroak** badira, Lurran bezala, baina hilabete gutxi batzuk iraun beharrean, zazpi urtetik gorakoak dira.

Hamasei egun behar ditut Saturnoren inguruan buelta osoa egiteko.




TITANIA ETA OBERON




Titania

Hauek bi Titania eta Oberon dira, Uranoren bi ilargirik handienak. Biribilak dira. **Krater, mendilerro eta arroila** pila dituzte azalean.



Oberon


Bere izenak Shakesperaren antzezlan ezagun bateko maitagarrien erreginaren eta erregearena dira.



Uranoren inklinazio arraroa dela eta, bere ilargiek berrogeita bi urte ematen dituzte ilunpetan, hurrengo berrogeita bi urte argizatuta. Han aurrean ikusten dut gure azken geltokia, goaz bal!

TRITON

Hemen Triton, Neptunoren ilargirik handiena. Bere planeta bezala, oso-oso hotza da.



Geologikoki aktiboa den Eguzki-sistemako sateliteko gutxienetakoa da, hau da, bertan **geiserrak eta izotz-sumendiak** dira, sua bota beharrean nitrogeno likidoa botatzen dituztenak. Bere planetaren aurkako mugimendua duen ilargi handi bakarra da, Neptuno aldera batera egiten du jira eta Triton, beste aldera.



Beno ba, oso urrun iritsi gara, nik
uste, etxera itzultzeko momentu
aproposa dela. Buelta dezagun ba
Lurrara!

Ezagutzen zenuen hauetako
ilargiren bat?

Uste duzu egunen
batean bizitza aurkituko
dela aipatutako ilargiren
batean?

HURRENGORA ARTE, AGUR!



www.kontakontari.com



@kontakontari